



ALIMENTARIA 2020 Bartzelona

Informazio gehiago: Lucía de Artaza
94 470 65 00
agro@camarabilbao.com

Data: 2020ko apirilaren 20tik 23ra

Tokia: FIRA Bartzelona - Gran Via esparrua

Maiztasuna: Bi urtean behin


Sektorea: Elikadura industriaren profesio-
nalak oro har (supermerkatu kateak,
banatzaileak, handizkariak eta txikizkariak)

Izena emateko epea: 2019ko uztailaren 22a

Webgunea: www.alimentaria-bcn.com

DEIALDI HONETAN:

Azokaren ezaugarriak
Parte hartzeko baldintzak
Parte hartzeko eredia eta kostua

Eusko Jaurlaritzarekin parte hartzea
Eskainitako zerbitzuak
Izena emateko formularioa 

Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta
Azpiegitura Sailak, Elikaduraren Euskal Industria
kanpoan sustatzen laguntzeko jardueren barruan,
ALIMENTARIA 2020 Elikaduraren Nazioarteko

Azokan enpresen parte hartze bateratua antolatu
du, HAZI Fundazioaren bitartez.

Azoka **Bartzelonan** egingo da, **2020ko apirilaren
20tik 23ra**.

Erakusteta eremua: 100.000 m²

Erakusleak 2018an: 70 herrialdetako 4.500 enpresa erakusle

Bisitariak 2018an: 150.000 bisitari profesional, 156 herrialdetakoak

Azokaren webgunea: www.alimentaria-bcn.com

AZOKAREN IZAERA

ALIMENTARIA Bartzelona Espainiako Elikaduraren Nazioarteko Azokarik garrantzitsuen eta munduko lehendabizikoetakoa da. Erreferentziazko ekitaldia, bere arrakastarako alderdiak izanik eskaintzaren espezializazio gorenarekin, berrikuntza eta kanpora begirako bokazio nekazina.

2020an, ALIMENTARIAko eskaintza hamar aretotan antolatuko da, modu transbertslean, bertikalean edo joeren arabera:

Areto transbertsalak: *Grocery Foods, International Pavillions eta Lands of Spain*

Areto bertikalak: *Intercarn, Interlact, Expoconser, Snack, Biscuits Confectionary, Mediterranean Foods eta Restaurama.*

Joeren espazioak: *Alimentaria Trends que agrupa a los subsectores Fine Foods, Organic Foods, Free From, Halal Foods eta Functional Foods.*

ALIMENTARIA azokak, gainera, hainbat ekitaldi paralelo eskaintzen ditu. *The Alimentaria Hub, The Alimentaria Experience, Innoval 2020 eta The Olive Oil Bar*, zeinetan berrikuntzari eta nazioartekotzeari lotutako ekintzak egingo diren, eta show gastronomikoak, besteak beste.

Aurreko edizioekin alderatuta, ALIMENTARIA 2020 berregituratu egin da, eta aurten, nobedade gisa, *Intervin*, Espainiako ardoen eskaintza aurkezteko pabiloia, ez da Alimentariaren esparruan egingo, eta azokako areto independente moduan eratuko da.

Bartzelona Wine Week azoka **2020ko otsailaren 3tik 5era** izango da. Eusko Jaurlaritzak parte hartuko duela aurreikusten da; hain zuzen, Alimentarian parte hartzen zuten upategiei babes emateko.

Edizio zenbakia: 23. edizioa

Erakusketa eremua: 100.000 m²

Erakusleak 2018an: 70 herrialdetako 4.500 enpresa erakusle.

Bisitariak 2018an: 150.000 bisitari profesional (%30 nazioartekoak, 156 herrialdetakoak)

Parte hartzeko konpromisoa

Euskal Ekonomia Erkidegoan fabrikatutako produktuak Ebaluazio inkesta

ALIMENTARIA 2020an parte har dezakete egoitza sozila Euskal Autonomia Erkidegoan duten enpresa **ekoizleek** bakarrik, Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren Elikadura Industrien Erregistroan izena emanda badaude.

Azokaren AURRETIK

- Enpresaren ordezkari baten aldetik joateko konpromisoa eta kuota ordaintzea; beraz, **EAEko pabiloien sartuko dela jakinarazten denetik ezingo da ekitaldian baja eman**. Halabeharrezko kasuetan baino ez, Eusko Jaurlaritzak eskubidea erreserbatzen du enpresak aurkeztutako arrazoiak baloratzeko eta, behar bada, ordaindutako zenbatekoaren portzentaje bat itzultzeko
- Muntatzen den egunean enpresak derrigor egon behar dira, esaten zaien orduan merkantzia jasotzeko, eta beraien erakustokien dekorazioa amaitzeko, jardunaldia hasi baino lehenago.

Azokan zehar

- Azokan **Euskal Autonomia Erkidegoan fabrikatutako produktuak** baino ezingo dira erakutsi. Ezin izango dira, inola ere, beste Autonomia Erkidego batzuetako produktuak aipatu, ezta aurkeztu ere.

- Standetan azokako egun guztietan eta zabalik dagoen ordu guztietan eman behar da arreta.

Enpresa batek azokaren ordutegi ofizialean standean arreta emateari uzten badio, salbuespenezko arrazoi justifikaturik gabe, azokaren hurrengo ediziorako lehentasunezko eskubidea galduko du (izena ematearen hurrenkera, etab.). Haren eskariari bakarrik erantzungo zaio baldin eta leku librerik badago izena emateko eta ordaintzeko datetan, egindako gainerrako eskari guztiei erantzun eta gero.

Halaber, enpresa batek edo batzuek standa hutsik uztearen ondorioz antolakuntzak zigor ekonomikoren bat jartzen badio Eusko Jaurlaritzari –parte hartze bateratuaren antolatzailea den heinean–, zigor hori berehala jasanaraziko zaio/zaie arau haustea egin du(t)en enpresari edo enpresei.

- Azoka amaitzerakoan produktu guztiak behar bezala jaso eta standeko elementuak entregatu, jaso ziren egoera berberetan.

Azokaren ONDOREN

- **Ebaluazio galdetegia** antolakuntzaren jarraibideekin bete eta entregatzea.

PARTE HARTZEKO EREDUA

Eusko Jaurlaritza pabiloi hauetan egongo da presente:

- Lands of Spain
- Expoconser

Oharra: betiere pabiloi bakoitzaren gutxieneko parte hartzaile kopurua badago. Beste pabiloi batean parte hartu nahi izanez gero, kontsultatu guri.

Parte hartzeko lau aukera eskaintzen dira:

Stand INDIBIDUALA

Stand PARTEKATUA

(enpresen arteko bereizgailurik gabeko gune partekatua. Stand eredu horretan parte hartu nahi duten enpresek kontuan hartu behar dute, lekuagatik, ez dutela tarterik izango hotz bitrinak jartzeko, ezta apaintzeko elementu osagarriak ere)

Stand BIKOITZA

Stand HIRUKOITZA

Oharra: stand bikoitza edo partekatua esleitzeko baldintzak izango dira espazio erabilgarria egotea eta enpresa parte hartzaileen kopuru totala.

PARTE HARTZEKO KOSTUA

ALIMENTARIA 2020an, Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailetik Euskal Autonomia Erkidegoko lehen sektorearen produktua eraldatu eta merkatu-ratzen duten enpresen parte hartzea bultzatuko da.

Hona hemen parte hartzeak dakarren kostua finantzatzeko dirulaguntzetarako egingo den sailkapena.



1. Motako Enpresa

Batez ere Euskadiko lehengaiz hornitzen diren enpresak. Enpresak produktuaren jatorria egiaztatu beharko du.

Eusko Jaurlaritzak horrelako enpresentzat emango duen dirulaguntza **%70** izango da, eta kostuak honela geratzen dira:

Stand Partekatua: 1.446,08 € + BEZ = 1.749,76 €

Stand Indibiduala: 2.892,16 € + BEZ = 3.499,52 €

Stand Bikoitza: 5.784,33 € + BEZ = 6.999,04 €

2. Motako Enpresa

Euskadin behar duten lehen sektoreko produktorik egon ez eta Euskaditik kanpoko lehengaiak erabiltzen dituzten enpresak.

Eusko Jaurlaritzak horrelako enpresentzat emango duen dirulaguntza **%50** izango da, eta kostuak honela geratzen dira:

Stand Partekatua: 2.410,14 € + BEZ = 2.916,27 €

Stand Indibiduala: 4.820,27 € + BEZ = 5.832,53 €

Stand Bikoitza: 9.640,55 € + BEZ = 11.665,06 €

3. Motako Enpresa

Euskadin behar duten lehen sektoreko produkzioa egon arren Euskaditik kanpoko lehengaiak erabiltzen dituzten enpresak.

Eusko Jaurlaritzak horrelako enpresentzat emango duen dirulaguntza **%30** izango da, eta kostuak honela geratzen dira: :

Stand Partekatua: 3.374,19 € + BEZ = 4.082,77 €

Stand Indibiduala: 6.748,38 € + BEZ = 8.165,54 €

Stand Bikoitza: 13.496,77 € + BEZ = 16.331,09 €

* **Oharra:** stand bikoitza edo partekatua esleitzeko baldintzak izango dira espazio erabilgarria egotea eta enpresa parte hartzaileen kopuru totala.

Parte hartzeko kuota i zatitan ordainduko da, baina faktura bakarra izango da.

- Zenbatekoaren %50 + %21 BEZ, izena emateko orduan, espazioa erreserbatzeko kontzeptuan.
- Gainerako zenbatekoa, berriz, jardunaldia egin baino 60 egun lehenago ordaindu beharko da.

Izen-emate formularioa

Ordainketa agiria eta Zinpeko Deklarazioa

Izen-emate epea: 2019ko uztailaren 22a

Parte hartzeko interesa baduzu, leku kopurua mugatua denez, gomendatzen dugu izena emateko formularioa betetzea eta ordainagiria bidaltzea e-mail bidez: agro@camarabilbao.com

Enpresa parte hartzaileen hautaketa izena emateko dokumentuak jasotzen diren hurrenkeraren arabera egingo da.

IZENA EMATEKO FORMULARIOA BETE

Formularioan eskatzen den informaziotik, datuak zehazki transkribatuko dira azokaren katalogo ofizialerako eta prestatzen diren gainerako elementu promozionaletarako.

ORDAINAGIRIA BIDALI

Espazio erreserbatzeko kuotaren **ordainagiria** (kostuaren %50 + %21 BEZ). Ordainketa banku transferentzia bidez egingo da:

Kontu zenbakia: ES49 3035-0179-61-1791069900 Laboral Kutxakoa, HAZI Fundazioaren izenean.

Kontzeptua: “**Enpresaren izena + ALIMENTARIA 2020**”

BIGARREN ZATIAREN ORDAINKETA EKINTZA EGIN BAINO 60 EGUN LEHENAGO EGINGO DA.

HAZI Fundazioko finantza departamentuak izena ematearen kuotaren zenbateko totalaren faktura bidaliko dizue.

Izena emateko epea: **2019ko uztailaren 22a**

ZINPEKO DEKLARAZIOA BIDALI

Izena ematen duten enpresek **lehengaien jatorriari buruzko Zinpeko Deklarazioa** sinatuta eta zigilua jarrita aurkeztea beharrezkoa da.

Izena ematearen formalizazioa Parte hartzeari uko egin

GARRANTZITSUA: Izen ematea formalki egindakotzat jotzeko, **IZENA EMATEKO FORMULARIOA BEHAR BEZALA BETETA ETA ZINPEKO DEKLARAZIOA ETA ORDAINAGIRIA BIDALI BEHARKO DIRA**, izen ematearen datan, ondorio guztietarako, ordainketa egin den eguna agertuko delarik.

Eskatutako dokumentuak bidaltzeak EZ DU ESAN NAHI enpresak Eusko Jaurlaritzaren pabiloian parte hartuko duela, izan ere, gutxieneko enpresa kopuru bat egon behar da hori egiteko. Eusko Jaurlaritzak izen ematea onartu den jakinaraziko du.

ENPRESAK FAKTURA JASO ETA GERO, HAU DA, EUSKADIKO PABILOIAN SARTU DELAKO JAKINARAZPENA JASO ETA GERO, PARTE HARTZEARI UKO EGITEN BADIO, ORDAINDUTAKOAREN %100 GALDUKO DU. Halabeharrezko kasuetan baino ez, Eusko Jaurlaritzak eskubidea erreserbatzen du enpresak aurkeztutako arrazoiak baloratzeko eta, behar bada, ordaindutako zenbatekoaren portzentaje bat itzultzeko.

Enpresek ordaindutako zenbatekoak itzultzeko kasu hauek baino ez dira kontuan hartzen:

- Enpresa erakusleek eskatutako gunea Azokaren Antolakuntzak Eusko Jaurlaritzari esleitutako gunea baino handiagoa bada, hautatu ez diren enpresek eskubidea izango dute aurrez izena emateko kuota itzultzeko.
- Eusko Jaurlaritzak halabeharrez edo nahiko partaiderik ez dagoelako parte hartzea bertan behera uzten badu, enpresek eskubidea izango dute ordaindutakoaren %100 jasotzeko.



- 1) Espazioa kontratatzea
- 2) Standaren dekorazioa
- 3) Standa mantentzea (garbiketa, elektrizitatea, ura, etab.)
- 4) Merkantziaren garraioa

Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailak, HAZI Fundazioaren bitartez, zerbitzu hauek eskainiko dizkizue:

ESPAZIOA KONTRATATZEA

Espazio promozional batekin parte hartuko da, eta hori enpresa ko-erakusle bakoitzerako pertsonalizatutako stand indibidualetan banatuko da.

STANDAREN DEKORAZIOA

Standa apaintzeko dekorazioa eta oinarrizko altzariak uniformeak izango dira EAEko erakusle guztientzat, eta, edonola ere, hau egongo da:

Stand Indibiduala: mahaia eta 4 aulki, erakusmahaia, enpresaren errotulua, konexio elektrikoa, hozkailu txiki bat eta biltegia.

Stand Bikoitza: 2 mahai eta 8 aulki, erakusmahaia, enpresaren 2 errotulu, konexio elektrikoa, hozkailu txiki bat eta biltegia.

Stand Hirukoitza: 3 mahai eta 12 aulki, erakusmahaia, enpresaren 3 errotulu, konexio elektrikoa, hozkailu txiki bat eta biltegia.

Stand partekatua: erakusmahai txikiagoa, enpresen arteko horma bereizlerik gabe, bileretarako guneta eta biltegi partekatuarekin modalitate honetan elkartzen diren enpresa guztientzat.

STANDAREN MANTENTZEA

Eusko Jaurlaritzak bere gain hartzen ditu garbiketako zerbitzu orokorrak, elektrizitatea, ura, etab., eta, oro har, pabiloia egoki mantentzeko lanak.

Stand bakoitzerako potentzia elektrikoko tope batzuk eta gehieneko kontsumo batzuk egongo dira, eta horren berri jakinaraziko zaie erakusketakideei parte hartzea prestatzeko tramiteak hasten direnean.

* **Oharra:** oinarrizko altzariak, elementu elektrikoak edo behar elektrikoak aldatzen badira, kostuaren igoera edo aldaketa eragiten badu, dekoratzaileak zuzenean fakturatuko dio enpresa erakusleari, eta enpresa horren kontu izango da zenbatekoaren igoera.

MERKANTZIAREN GARRAIOA

Eusko Jaurlaritzak merkantziaren bidalketa bateratu bat antolatuko du, esleitutako garraiolari ofizialak adierazten duen lekutik merkantzia standean bertan entregatu arte. Bere garaian, esleipena duen enpresa garraiolariaren datuak emango dira.

Garraioaren kontratazioa indibiduala izango da; ondorioz, garraiolariak zuzenean bidaliko dio enpresa erakusleari merkantzia bidaltzearen kostua, eta zerbitzua enpresaren kontu joango da.

- 5) Hotz kamerak eta beste etxetresna elektriko batzuk
- 6) Azokaren katalogo ofizialean sartzea
- 7) Azokako sustapen-ekintzak
- 8) Eusko Jaurlaritzaren stand berean sustapen-ekintzak. Basque Txokoa
- 9) Negozio aukerak

HOTZ KAMERAK ETA BESTE ETXETRESNA ELEKTRIKO BATZUK

Hotz kameren eta beste etxetresna elektrikoen alokairua erakuslearen kontu izango da. Halere, Saila enpresen esanetara jartzen da zerbitzu hori kontratatzea koordinatzeko, eta hornitzaileak zerbitzuak zuzenean erakusleari fakturatuko dizkio.

AZOKAREN KATALOGO OFIZIALEAN SARTZEA

Eusko Jaurlaritzak egin beharreko izapideak egingo ditu azokara joaten diren enpresa erakusle guztiak azokaren antolakuntzak argitaratzen duen katalogo ofizialean agertzeko, non jardunaldiaren erakusle guztiak agertzen diren (Formularioan emandako datuak agertuko dira).

AZOKAKO SUSTAPEN-EKINTZAK

Azokaren esparruan programatzen diren jarduera, foro, hitzaldi eta tailer ugari egiten dira. Gainera, Alimentariak horietan guztietan pare hartzeko aukera ematen dizu, ikusgaitasun eta nabarmentasunik handiena lortzeko.

EUSKO JAURLARITZAREN STAND BEREAN SUSTAPEN-EKINTZAK. BASQUE TXOKOA

Basque Txokoa gastronomia eta, zehatzago esanda, bere elementu identifikatzaile bat, Txokoa, euskal elikagaien industriara lotzeko jaiotako da, eta, horrela, gure enpresen lan komertziala hobetzea azokan.

Eskura dagoen espazioa (erakutsi nahi duten enpresentzako) honela osatuko da printzipioz (aldaketarik egon daiteke): publikoari irekitako espazio irekia (show cooking) eta espazio pribatua (baina ikusgai dagoena).

Espazio biak sukaldari batek kudeatuko ditu eta Eusko Jaurlaritzaren stand-ean parte hartzen duten enpresen eskura.

NEGOZIO AUKERAK

ALIMENTARIAk hainbat tresna eskaintzen ditu topaketaren presentzia optimizatzeko, harreman komertzialak eta aldebiko bilkurak egitea errazten dituzten ekintzen bitartez, erakusleen eta nazioarteko erosleen arteko lankidetzak, banaketa eta berrikuntza bultzatzeko. Horrekin, nekazaritzako elikagaien industria atzerrian lehiakorragoa izatea lortu nahi da. Ekintza interesgarri guztien gaineko informazio zehatza emango da.